

Aurreko azalpen txikia begiratuz, gure helburua, klase partikularrak ematea da, baina gure lehen aukera edo pribilegioa izango zuten bezeroak baliabide gutxiko umeak edo familiak izango ziren. Guk HH-tik DBH-ko ikasleei lagundu dezakegu dakigun guztiarekin. Gaur egun, partikularrak oso garestiak dira eta hainbat familiek ezin dute ordaindu. Gainera gure herrian ez dugu ezagutzen proiektu antzekorik egiten dituzten enpresarik eta datu horrekin puntu txiki bat lortuko genukeen. Gure enpresa txiki honek, lehenik bezero guztien ongi izatean oinarrituko da. Familia bakoitzak aukera izateko eta denek gurekin harreman ona izateko. Metodo honekin, bezeroen kopurua handitu leike.